

EUSKALDUN BIPILAK

ETA MANCAHTAR BIZKOĀK IZAN ZUTEN

BUĀUKALDI LAZGARĀREN ONDĀĀ

Ixtori onen leen-zatian or utzi ditugu euskaldun bizkoĀa ta Quixote jaun aipu audikoa, ezpata soilak gorarik, ukaldi erdiragafi bana elkarĀ irauzteko einan; ainik eta erdi betean atzemanegeroz, erdiratuko baitzuten elkar eta goiti beera lertuko, punisagafa bezala. Kezka artan eten ginuen gertaera atsegin ori; yalki zuenak ezpaitzigun ěraten non ediren laiteken ixtori aren ondarĀa.

Atsekabetu nintzen, eta irakuraldiĀo aren atsegin-poxia atsekabe bilakatu zitzakidan, gertaera aren nonbaiteko ondar-zatia lizeagoa litakelakoan, eta edireiteko, beĀiz, alderdi txarĀa.

Ezina ta oigabezkoa iduri zitzakidan, alako zaldun ona, gizon yakintsu baten peitu ote zen, egite aĀigafi oriek idazteko; eldetara doazin «zaldun ibiltari» direlako oriek ezpaitziren aukera aukerako yakintsu baten edo bigaren peitu izaten, beren egite aundiak ez ezen, burutapenik gordeenak eta aurkeririk ĀimiĀoenak ere oartarazteko. Ta Platir-ek eta bere gisakoek gainez ukan zutenaz, ezpaitzen bearĀetan izanen Āondikoz! gure zaldun ona.

Enuen bada sinetsi nai ixtori eder ura erdaiĀatua ta andeatua zitakenik, eta onen obena aldi-mende gaizto iresleari egoziten nion, bertze zernai bezala, ixtori au ere gorderik edo igaturik zadukalakoan. Iduri zitzakidan bertzenaz, liburu aien artean ediren bai nituen «Espa gaiztoen etsipena» ta «Henares-ko maitagarĀiak eta artzainak» bezain oraitsuko ixtoriak, gure au ere oraitsukoa bide zela, ta yendearen burutan ezafi gabe zagonez geroz, bere ěrixkako edo aldirietako yendee n oroitean edirenen zela.

Uste-muste onekin naasirik eta gure espaĀar aipatu den Manchako Quixoteren bizitza ta mirakukuak yakin naiz nindabilen; Mantxako zaldunen argi ta ixpilua izanik, gure mende negargari oketan zaldun ibiltari asi zenarenak. Ibili ere baitzen irainak aspe-

farazten, alargunen urgaizten, eta arako zarta-mutil eta zamalzain-artean neskaxtasuna oianez oian, ibaíez ibar zarabilten neskax aiei laguntzen. Pa ziren oen artean, laurogei urtez atari zabalean etzinda ere, erdi zituen ama bezain osorik il-obira yautsi zirenak, kankailuren batek edo armadun ta buruzoíodun zipotzen batek edo éraldoi izugafiren batek indarbeartzen ezpazituen. Ortaz bada, ta bertze zenbait kariaz, gure Quixote yauna beti aipagari da, ta neri ere etzait aipua ukatu bear, ixtori onen ondará bilaketan egin nuen alegin eta nekearengatik. Ba dakit bai, zeruak eta alabeaíak eta zorionak lagundu ezpalidate, munduak etzuela izanen au irakurtzeko (ordu bitsuko) atseginaldirik. Ikus bada, nola ediren nuen.

Beinola Toledoko Alcanan nindagoelarik, mutiko bat etoíi zitzakion zarpil-biltzaile bati, paper zar eta iskribu batzuen saltzera. Ain itoa bai naiz ni atariko paper-puxkak ere irakurtzeko, nere leiari nitxekola, artu nuen, mutibo saltzaile aren iskribuetako bat. Arabi-letrak zirela goartemanik, irakurtzen ezpanakien ere, inguru-begira asi nintzen, erdara zakien maurotaríak azaltzen ote zen. Etzen gaitz izan, ez ta izkuntza aitzinagokoa ta edeíagoa izan balitz ere.

Zoriak, naski, ekaíi zidan nere gogarakoa, ta liburua eskuetan ezaíi niolarik, ideki zuen erdi-aldetik, eta apurño bat irakufita ííiz asi zen. Galdegin nion zeri ííi egiten zion, eta, «liburu arek ertzean zadukan oar bati» yardetsi zidan. Efan zezala agindu nion, eta berak, ííi egitez atertu gabe efan zuen: ona zer dagoen ertzean idatzirik: «ixtori ontan ainbertze aldiz aipatzen deneko Toboso-ko Dulcinea onek edozein emakumek baino esku ohea zuen urdeen gazitzeko». Ni «Tobosoko Dulcinea» entzutearekin, áritua baldituta gelditu nintzen, iduri baitzitzakidan iskribu aietan bide zela Quixote yaunaren ixtoria. Uste onen ustez, iraduka irakufarazi nion aitzinaldetik, eta arabi-izkuntza itzetik ortzera erderatzen zuela, ikus zer éráten ornen zuen: «Manchako Quixote yaunaren ixtoria, arabitar ixtorigile Cide Hamete Benengelik idatzia». Zuurtze aundi bear izan nuen nere pozaldia itzalgaizteko, liburu aren idaz-gaia nere belafietara zeneko; ta zarpil-biltzaileari aitzina arturik, paper eta iskribua oro éreal erditan erosi nition. Berak ere zuurtzea izan balu, ta ni aien ííikatzen nengoela yakin, artuko zituen, naski, saltzekotik, sei éfeal ta akets. Aldegin nuen usu maurotaríarekin, Eliz nagusiaren eipera, ta eskatu nion, Quixote aipatzen zuten iskribu aietakoak oro erdarara itzuli zitzala, áreen, izpirik utzi gabe ta eratxiki gabe; eskatzen zuena xurituko niola ta. Bi ároa maats-

zimel eta lau éreu garirekin etsi zuen, eta zintzo ta xee ta labur itzuliko zituela. Nik beñiz, nere egitekoa erázteagatik, eta nere edirena eskutik ez uzteagatik, etxera ekári nuen, eta ilabete ta erditsuren mugan erdaratu zuen emen daraikon eran.

Lenbiziko iskribu-atalean, Quixote yaunaren eta euskaldunaren buñukaldia zagoen, aizi bizi ta egite berean margoztua, ixtoriak éfaten duen ekantzean, ezpatak gorarik, bata bere gorde-piññarekin gerizatua, ta bertzea bururko batekin. Eta euskaldunaren mandoa ain bizi-antzo iduria zagoen, iduri baitzuen azkon-ukaldi bat bidera ere, eraendua zela. Idazpekotzat au zadukan: «Sancho Azpeitiaña, izen au bide zuen. Eta Rocinante bertze au: «Quixote yauna». Rocinante ori miragañiki iduriztatua zagoen, ain luze, argal eta aul, alako bizkafezuñarekin, ain birike-min galduarekin, agerian baitzagoen zein oartuki ta zer izen yatorá eritzi zioten: «Rocinante». Aren ondoan zagoen Sancho Sabel, astoa buru-lokitik zadukala Idazkipetzat: «Sancho Ankamakil». Margo-iduriak adiarazten zuenaz, sabela aundia bide zuen, kaizu labuñá, ta ankamakilak luzeak, eta ofengatik bi izen oriek ematen bide zazkio ixtorian: «Sabel» eta «Ankamakil».

Bertze iñozokeri batsuk oar laitezke, baino ez dire kanore aundikoak, eta ez datoz ixtoriaren arira, egiazkoa izateko: egiazko ixtoririk ezpalta gaiztorik. Ixtori oni oztoporen bat yañi al balaitio, egilearena litzake, arabitañá baita berez, gezurti utsa, aien sorteritaña denez. Ala ere, aiek ain etsai ditugunez gero, gure ixtori au luze ordeztu labur yo ditake. Ala dirudi, izan ere, zaldun bikain onen aipuetan luzatu bear lukenean ere, berariz ixiltzen baita Caizki egiña ta okerágo asmatua. Ixtorigilea, zintzo, egiati ta léragebe bear baitu; ez du egiazko bidetik okerarazi bear, ez sariak, ez belduñak, ez asaréak, ez leiak. Egiaren ama da ixtoria, aldimebarean leikide, egiteen gordairu, iragan-mendearen aitorle, oraieren erakusburu ta argibide, ta geroaren oargañi. Ixtori ontan edirenen da atsegingañienetan ediren laitekena, ta utsen bat balu, nere obena litzake, ta ez gaiarena. Ainaren bigañen zatia onela asten zen bada, erdarari gatzizkola.

Ezpata zoñotzak gora eraikirik, bi buñukalari indartsu ta asarétuak baziruditen zeru-lur-ifarnueri eskainka ari zirela: alako kemena ta yarkera zarakusten. Lenbiziko ukaldia euskaldun asaréak irautzi zuen, bai indañez ta amurúz; bidean ezpata okertu ezpaltzaio, ua bakaña naikoa baitzen gure zaldunaren buñuka ta eldeak oro betiko itzaltzeko. Baino gure zalduna, gauz aundigotarako

zadukan zorionak, eta arerioaren ezpata okertu egin zuen. Ezkerreko soinburuan atzeman ba zuen ere, arma-yantziaren alderdi osoa kentzea besterik etzion egin, eta aina lufera yautsi zen itxilu aundiz, eta oso ondaturik, Quixoteren belarí-erdia berekin eramaten zuela. ¡Ene! Nork adiarazi bear bezala, gure manchatafaren biotzean sortu zen amofua bere burua ala ikusiki? Yari zen zut, oin-burdinen ganean, eta ezpata bi eskuetan estutzenago zuelarik, eman zion euskaldunari egundainoko asarearekin, eta bururkoaren eta buruaren erdian asmatu. Alako gordagailu ona ezpaitzen aski mendi bat erori balitzakio bezala asi zen euskalduna odola zariola sudur-ago-belaríetatik, eta mando-gainetik erori-einean. Eta lepotik eldu ezpalio, eroriko zen naski. Ala ere oinak burdinetarik atereak zituen, besoak lepotik askatu zitzaizkion, eta mandoa, ukaldiotsez ikaratuta asi zen iges zabaldegian barna ta ziripurdi asko gabe, lufera egotzi zuen nagusia. Begira zagokion lasa lasa Quixote yauna, ta erortzen ikusi zuenean, yetsi zen zaldi-gainetik eta zailu yoan zitzakion, eta ezpata-mutura begietan keinatzen ziolarik, txil egiteko eran zion, bertzenaz lepoa moztuko ziola. Euskalduna lari zen, itzik atera etzezaken einean, eta igariko zion gizagajoak, buruka-bitartean aldixarturik bezala kotxean egon ziren andre batzuk ara etofí ezpalire, ta otoi ta otoi eskatu ezpaliote, bizia barka zezaiola aien ezkutariari: ain itsu zagoen Quixote Yauna. Yardetsi zien afoki ta funtsez: «Baiki, andre edefak, pozik eginen dut eskatzen didazutena, baino aukera batekin: zaldun onek agindu dizadala Tobosoko efira yoanen dela, ta niketz Dulcinea berdinegabearen aitzinera agertuko dela, ontaz gogoak emaiten diona egin dezan». Andere beldurti ta naigabetuak, Quixote eskkatuari begi eman gabe, ta Dulcinea ori nor zen galdegin gabe, agindu zioten, ezkutariak eginen zuela, aren bidez aginduko zitzakiona. «—Itz oren zinarekin eztiot bada aufera gaitzik eginen, merezi izan ba du ere».

ORMAETXEA N.
(LEEN-SARI IRABAZTUNA)

Elde: aventura (L. Azkain).

Txil egin: darse por vencido (Ba-i-m-oñ).

Puni-sagára. Sariztutako euskaratiean *mingrana* ipini nuen Haranedefí ta Duvoisini nitxekiela. *Mingrana malogranatum* da, ta puni-sagára *malum punicum*, adi-erázagoa *mingrana* baiño.

El galgo de su autor; Itzuri egin zitzakidan euskeraratu gabe.